

## IDAZMENA

### Oharrak:

- ~~Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.~~
- Gogoratu gutxienerako hitz kopurua bete behar duzula (140 hitz).
- Idazteko boligrafoa erabili.
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - egitekoa
  - testuaren antolaketa eta garapena
  - euskararen egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna

### Egitekoa:

Lan-eskaintzari erantzun.

Egunkarian bi lan-eskaintza irakurri dituzu. Aukeratu eskaintza bat eta idatzi e-maila zeure burua aurkezteko eta informazio gehiago eskatzeko.

1

Zaindaria behar da  
Familia batek pertsona arduratsu bat behar du emakume nagusi bat zaintzeko. Interesatua bazaude, bidali e-mail bat gLaida@hotmail.com kontaktuko helbidera.

2

Taberna-zerbitzaria behar da  
Taberna batean zerbitzari bat behar da harra eta mahaiak zerbitzatzeko. Lan horretan interesatuta bazaude, bidali e-mail bat gorbeiataberna@gmail.com kontaktuko helbidera.

Nahi duzun ordenan, baina ondorengo puntu guztiak aipatu behar dituzu:

- Azaldu zure formazioa eta esperientzia
- Zergatik interesatzen zaizun lanpostua
- Zure lan egiteko modua, dedikazio maila...
- Galdetu nolako lan-baldintzak (lan-egutegia, ordutegia, soldata...) izango dituzun
- Lan horretatik espero duzuna

Bidali e-mail bat lan eskaintzari erantzuteko

Gutxienez, 140 hitz idatzi beharko dituzu.

# HABE

Zirriborroetarako orria  
(orri hau ez da zuzenduko)



